

berria

Menua 



11/13

MAKROEPAIKETA



Zer da 11/13 auzia?





HERRIRA

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Eloy Velasco epailearen aginduz, makrosumarioaren lehen polizia operazioa izan zen Herrera-ko kideen aurkakoa. 18 kide atxilotu zituen Guardia Zibilak hasieran, 2013ko irailaren 30ean. Deklaratu ondoren, baldintzapean aske gelditu ziren guztiak, baina batzuek bermea ordaindu behar izan zuten. Herrera-ren egoitzak ere miatu zituzten Hernanin (Gipuzkoa), Gasteizen, Bilbon eta Iruñean. Bestalde, 38 webgune, Twitterreko 32 kontu eta Facebookeko 125 ere itxi zituzten. Gero, abokatuen aurkako operazioan, beste hiru kide atxilotu zituzten 2015eko urtarrilaren 12an: Fran Balda, Javier Carballido eta Jon Mindegiaga. Behin-behinean egon

ziren horiek espetxean, 10 eta 13 hilabetez.

Euskal presoan eta iheslarien egoera konponbidean jarri nahian sortu zen Herrira, 2012an. 250 herri bilgunetik gora sortu ziren, eta, besteak beste, "Herritarron Epaia" egitasmoa antolatu zuten Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 197/2006 doktrina bertan behera utzi aurretik, baita Bilboko urtarrileko manifestaziorako deia egin ere 2013an.

AUZIPETUAK



Jesus Mari Aldunberri

Elduain, Gipuzkoa

Herrira-ko komunikazio taldeko kide zela atxilotu zuten Jesus Mari Aldunberri 2013ko irailaren 30ean, beste hamazazpi kiderekin batera. Gau bat pasatu zuen kartzelan, harik eta 20.000 euroko bermea ordaindu zuen arte.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxe urteetarako ez ezik 10 urte gehiagorako ere bai.

Terrorismoa jarraian goratzeagatik ere inhabilitazio eskaera du, espetxe zigorra baino 10 urte luzeagoa hori ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.



Fran Balda

Arbizu, Nafarroa, 1967

Herrira-ko kide izatea egotzita, bi aldiz atxilotu dute Fran Balda. Lehena, 2013ko irailaren 30ean; bigarrena, abokatuen aurkako polizia operazioan, 2015eko urtarrilean. Bietan akusazio

berak egotzi zizkioten, eta, espetxean hamar hilabete egin ostean, 10.000 euroko bermea pagatuta gelditu zen libre.

Arbizuko hautetsi izan da EAE-ANVren eta Bilduren zerrendetan aurkeztuta.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea, terrorismoa finantzatzea eta baldintzapeko neurriak haustea.

Espetxe-zigor eskaera: 20 urte eta bost hilabeteko espetxe zigorra lau delituengatik. 18 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Beste 20 urte

gehiagoko inhabilitazio eskaera
du terrorismoa jarraian
goratzeagatik eta terrorismoa
finantzatzeagatik.

Isunak: Egunean 10 euroko
isuna 36 hilabetez. 10.800 euro,
alegia.



Javier Carballido

Barakaldo, Bizkaia, 1972

Herrira-ko kide izatea leporatu arren, 2015eko sarekadan atxilotu zuten, hamabi abokaturekin eta Herrira-ko kide izateaz akusatutako beste hiru kiderekin batera. Urtebete egin zuen espetxean auzi horrengatik, 2016ko otsailera arte.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa finatzea.

Espetxe-zigor eskaera: 17 urteko espetxe zigorra bi delituengatik. 14 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte

gehiagorako. Beste 10 urteko inabilitazio eskaera du terrorismoa finantzatzeagatik.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 20 hilabetez. 6.000 euro, alegia.



Amaia Esnal

Urnieta, Gipuzkoa, 1979

Atxilotu zutenean, 2013ko irailean, Herrera-ko bozeramailea eta Gipuzkoako arduraduna zen Amaia Esnal. Aske utzi zuten, behin-behineko neurriak ezarrita. Aurrez ere atxilotu zuten, 2009ko urriaren 13an, *Bateragune auzikoen* aurkako sarekadan. Orduan, fiskalak 10 urteko espetxe zigorra eskatu zuen Esnalentzat, baina epaileak absolbitu egin zuen.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12

urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.



Joxean Fernandez

Gasteiz

2005ean gelditu zen libre, espetxean 22 urte egin ostean. ETako kide izatea egotzita bete zuen zigorra. Libre gelditu ostean, parte hartu zuen elkarbizitzaren inguruko hainbat hitzalditan, eta askotariko biktimen topaketetan izan zen. Polemika piztu zuen, esaterako, 2015ean Espainiako Kongresuan egitekoa zen topaketak. Azkenean, ez zuten egin. 2014an, ezker abertzaleko hainbat emakumek salatu zuten sexu erasoak egin zizkiela, eta, barne prozesu bat ireki ostean, Sortutik bota zuten

2015ean.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 15 urteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 13 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 18 hilabetez. 5.400 euro,

alegia.



Jon Garai

Antsoain, Nafarroa, 1978

Batasunako Mahai Nazionalaren aurkako operazioan atxilotu zuten, 2007ko urriaren 5ean, beste 22 kiderekin batera.

Espetxean egon zen 2010era arte, eta baldintzapean gelditu zen aske, 50.000 euroko bermea ordainduta. Epaiketa izan zuten 2016an, eta, fiskalarekin akordioa eginda, espetxean ez sartzea lortu zuten inputatuek. Herrira-ko bozeramaile eta Nafarroako arduradun izan zen 2013an, atxilotu zituzten arte. Egun, Nafarroako EH Bilduko koordinatzailea da.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12

urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.



Nagore Garcia

Deba, Gipuzkoa, 1981

Herrira-ko Gipuzkoako taldeko langilea zen Nagore Garcia. Herrira-k Hernanin zuen egoitzan batzartuta zeudela atxilotu zuten. Madrilgo Soto del Real espetxean lau gau egin ostean, 20.000 euroko bermea ordainduta gelditu zen aske.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12

urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.



Gorka Gonzalez

Gasteiz, 1981

Arabako Herrira-ko kide zen Gorka Gonzalez. Lehen sarekadako gainontzeko hamazazpi kideen moduan, espetxera sartu, eta behin-behinean aske utzi zuten handik hiru egunera.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea, terrorismoa jarraian goratzea eta baldintzapeko neurriak haustea.

Espetxe-zigor eskaera: 14 urte eta bost hilabeteko espetxe zigorra hiru delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12

urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.



Eneko Ibareguren

Azpeitia, Gipuzkoa, 1979

Gipuzkoako Herrira-ko kide zen Eneko Ibareguren. Lehen sarekadako gainontzeko 17 kideen moduan, espetxera sartu, eta behin-behinean aske utzi zuten handik hiru egunera.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa

espetxealdirako eta 10 urte
gehiagorako. Espetxe zigorra
baino 10 urte gehiagoko
inhabilitazioa eskatu diote
terrorismoa jarraian
goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko
isuna 16 hilabetez. 4.800 euro,
alegia.



Imanol Karrera

Antsoain, Nafarroa, 1988

Zuzenbidea ikasi du. Herrira-ko Nafarroako kide izatea leporatuta atxilotu zuten. Gero, LABeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuko langileen ordezkari izan zen, eta, egun, LABeko Nafarroako bozeramailea da.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea, terrorismoa jarraian goratzea eta baldintzapeko neurriak haustea.

Espetxe-zigor eskaera: 14 urte eta bost hilabeteko espetxe zigorra hiru delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12

urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.



Sergio Labaien

Iruñea, 1975

Kazetaria da; besteak beste, *Gara*-n eta *Ahotsa.info*-n aritu da eta. Mozal legearen inguruko hainbat jardunalditan ere parte hartu du.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu

publikorako, eta osoa
espetxealdirako eta 10 urte
gehiagorako. Espetxe zigorra
baino 10 urte gehiagoko
inhabilitazioa eskatu diote
terrorismoa jarraian
goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko
isuna 16 hilabetez. 4.800 euro,
alegia.



Ibon Meñika

Zamudio, Bizkaia, 1977

Jarraiko kide eta gazte erakunde horretako bozeramaile izan zen. Herrira-ko kide izateagatik atxilotu aurretik, beste bitan atxilotu zuten. Lehenean, Jarraiko kide izatea leporatu zioten, 2003an. Hiru urte geroago, berriz, ETA "finantzatzeke bonu" batzuen harira atxilotu zuten, baina 2007an absolbitu egin zuten. Jarraiko kide izateagatik, ordea, espetxean egon zen 2011ra arte. 2013an, atxilo hartu zuten Herrira-ko kide izateagatik.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 15 urteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 13 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 18 hilabetez. 5.400 euro, alegia.



Jon Mindegiaga

Ibarra, Gipuzkoa 1979

Mintegiaga 2002an atxilotu zuten lehen aldiz, guardia zibilek, eta bost urteko zigorra bete zuen osorik, ETari laguntzea egotzita. 2007ko irailean atera zen kartzelatik. Herrira-ren aurkako 2013ko

operazioan atxilotu ez bazuten ere, deklaratzera deitu zuten inputatu gisa, eta hala egin zuten. 2015ean atxilotu zuten, Herrira-ko kide izatea egotzita.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 15 urteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 13 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote

terrorismoa jarraian
goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko
isuna 18 hilabetez. 5.400 euro,
alegia.



Roberto Noval

Deustua, Bizkaia, 1977

Amnistiaren Aldeko

Mugimenduko kidea izan zen, eta bozeramaile lanak ere egin zituen hainbat agerralditan. Egin Dezagun Bidea euskal presoen eskubideen aldeko plataformako kide ere izan zen. Herrira-ko kide izateagatik atxilotu zuten, 2013an.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko

inhabilitazioa eskatu diote
terrorismoa jarraian
goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko
isuna 16 hilabetez. 4.800 euro,
alegia.



Nagore San Martin

Zizur Nagusia, Nafarroa, 1974

Abokatuen kontrako polizia operazioan atxilotu zuten, 2015ean, Herrira-koa izatea egotzita.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa finantzatzea.

Espetxe-zigor eskaera: 17 urteko espetxe zigorra bi delituengatik. 14 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Beste 10 urteko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa finantzatzeagatik.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 20 hilabetez. 6.000 euro, alegia.



Oscar Sanchez

Erromo, Bizkaia, 1989

Herrira-ren kontrako polizia operazioan atxilotu zuten, 2013ko irailean, Hernaniko egoitzan. Atxiloaldia amaituta utzi zuten aske, baldintzapean.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.



Jose Manuel Ugartemendia

Errenteria, Gipuzkoa, 1960

Herrira-ko kide izateagatik atxilotu zuten Ugartemendia, 2013an, eta karguekin aske utzi zuten gero. Aurrez, sei urteko zigorra bete zuen Frantziako Estatuan, etakide izatea egotzita. 2011n utzi zuten aske.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 15 urteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 13 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 18 hilabetez. 5.400 euro, alegia.



Eneko Villegas

Atarrabia, Nafarroa, 1985

2010. urteko abenduan ere atxilotu zuten, Segiko kide izatea egotzita, eta 2014an epaitu zuten, beste 27 gazterekin batera. Beste gehienen gisan, torturak salatu zituen: inkomunikazio aldia "infernu

bat" izan zela kontatu zuen. Hamabost hilabete eman zituen atxiloaldi prebentiboan, eta absolbitu egin zuten azkenean, 2015eko maiatzean. Tartean, Herrira-ren aurkako operazioan atxilotu zuten, 2013an.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote

terrorismoa jarraian
goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko
isuna 16 hilabetez. 4.800 euro,
alegia.



Beñat Zarrabeitia

Bilbo, 1983

Kazetaria da Beñat Zarrabeitia;

gaur egun, aurkezle eta komunikazio arduradun ari da Hamaika telebistan. 2013ko polizia operazioan atxilotu zuten, Herrira-ko kide izatea egotzita, eta karguekin libre utzi zuten atxiloaldia amaitu ondoren.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: Bi delituengatik 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko

inhabilitazioa eskatu diote
terrorismoa jarraian
goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko
isuna 16 hilabetez. 4.800 euro,
alegia.



Ane Zelaia

Gasteiz, 1985

Magisteritza ikasketak egin zituen Ane Zelaiak, eta irakaslea da lanbidez. Gasteizko alde zaharreko Goian elkartean eta Santo Domingo Bizirik taldeetan aritzen da, eta Bizikoo pon etxebizitza kooperatibako kidea ere bada. Arabako Herrira-ko kidea zen atxilotu zutenean, 2013ko polizia operazioan. Karguekin libre utzi zuten hiru egunen buruan.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea, terrorismoa jarraian goratzea eta baldintzapeko neurriak haustea.

Espetxe-zigor eskaera: 14 urte eta bost hilabeteko espetxe zigorra hiru delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12

urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.



Ekain Zubizarreta

Arrasate, Gipuzkoa, 1982

Humanitateak eta Enpresaritzan lizentziatua da Ekain Zubizarreta, eta euskara aholkulari gisa ari da lanean gaur egun. Anger musika taldeko kidea ere bada. 2013ko polizia operazioan atxilotu zuten, Herrera-ko kide izatea egotzita, eta karguekin libre utzi zuten atxiloaldia amaitu ondoren.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea eta terrorismoa

jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bi delituengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Espetxe zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa eskatu diote terrorismoa jarraian goratzeagatik ere.

Isunak: Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.

2012ko uztailean aurkeztu zuten bitartekari taldea, EPPK gizarte eragileekin harremanetan jartzeko asmoz. Zehazki, "eragileei mintzaidetzarekiko harremanak ireki eta garatzeko erraztasunak ematea" zen helburua. 25 laguneko taldea zen, zenbait preso ohi eta abokatuk osatua. 2014ko urtarrilaren 8an, zortzi lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak –espetxeratu egin zituzten–, eta abokatuen bi egoitza eta atxilotuen etxebizitzak miatu zituzten. Beste bat ere –Naia Zuriarrain– inputatu zuten gero.

AUZIPETUAK



Mikel Almandoz Erbiti

Iruñea, 1971

2003ko abenduan atxilotu zuten, Frantziako Lons herrian, baina ez zuten epaitu 2009ra arte. Europako Giza Eskubideen Auzitegira jo zuen Almandozek,

eta hark arrazoi eman zion,
"arrazoiziko epean" epaitua
izateko eskubidea zuela-eta.
Zigorra beteta, 2012an geratu
zen aske. Bitartekari taldean
aritu zen 2014an atxilotu zuten
arte, eta urtebete eta bi hilabete
egin zituen preso, behin-
behinean.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean
parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 13 urteko
espetxe zigorra eta 8 urteko
zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 13
urterako, lan edo kargu
publikorako, eta osoa
espetxealdirako eta 10 urte
gehiagorako.



Asier Aranguren Urroz

Iruñea, 1973

21 urte zituela, urtebete egin
zuen preso Espainiako
soldadutzari intsumiso
izateagatik. 2003an atxilotu

berriz, Bordele inguruko Saintes herrian, eta preso izan zuten 2010 arte, ETAko kide izatea egotzita. 2014an berriz atxilotu zuten, bitartekarien aurkako operazioan. Hain justu, egun horietan estreinatu zen Aranguren protagonista duen 'Asier ETA biok' filma, Aitor Merino zuzendariarena.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 12 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 13 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte

gehiagorako.



Jose Luis Campo Barandiaran

Donostia, 1957

1980ko hamarkadan ihes egin
zuen Donostiatik, eta 2004an
atzeman zuten, Frantziako

Chatellerault herrian, beste bi lagunekin batera. ETako kide izatea egotzita, hamar urteko zigorra jarri zion Frantziak, eta aske geratu zen 2011ko uztailean. Bitartekari taldean hasi zen gero, 2014an atxilotu zuten arte.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 14 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 15 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Jon Enparantza

Donostia, 1968

Denbora luzez bakartuta eduki zuten Enparantza, 2014ko operazioaren ondoren. Bi urtetik gora egin zituen "muturreko eran", eta 25.000 euroko

bermearekin irten zen, 2016ko martxoan. Besteak beste, Europako abokatu elkarte batzuek salatu zuten haren eta Zuluetairen egoera. Aurrez ere atxilotu zuten, 2010eko apirilean, eta abendura arte izan zuten preso.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 14 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 15 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Egoitz Lopez de Lacalle Uribarri

Otxandio, Bizkaia, 1979

1997an atxilotu zuten lehen aldiz, kale borrokako ekintza batzuetan parte hartzea leporatuta, baina aske utzi zuten

ondoren. 2001ean, Segi-Haikaren aurkako operazio baten barruan atxilotu zuten, eta lau urte egin zituen behin-behinean preso. Bitartekari taldean aritu zen 2014an atxilotu zuten arte.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 12 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 15 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Aintzane Orkolaga Etxaniz

Donostia, 1955

Hendaian (Lapurdi) bizi izan da Orkolaga, eta 2001ean atxilotu zuten, Auchan (Frantzia), Tolosa mendebaldean. 2009an kanporatu egin zuen Frantziak, etakide izateagatik jarritako zigorra bete ondoren.

Bitartekari taldean aritu zen
2014an atxilotu zuten arte.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean
parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 12 urteko
espetxe zigorra eta 8 urteko
zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 13
urterako, lan edo kargu
publikorako, eta osoa
espetxealdirako eta 10 urte
gehiagorako.





Aitziber Sagarminaga Abad

Bilbo, 1975

2004ko azaroan atxilotu zuen Guardia Zibilak, ETArekin lotura izatea egotzita, Bizkaian egindako sarekada batean. Atxiloaldian torturatu egin zutela salatu zuen, eta bost urteko zigorra bete ondoren irten zen espetxetik, 2009an. Bitartekari taldean hasi zen gero, 2014an atxilotu zuten arte.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean

parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 12 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 13 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Arantza Zulueta Amutxastegi

Bilbo, 1962

Euskal presoan artean abokatu ezaguna da Zulueta; 1991tik aritu da lan horretan. Besteak beste, 18/98 auzian eta ezker abertzaleko buruzagien aurkako hainbatetan aritu izan da, eta EPPKren bitartekari gisa lan egin du azken urteetan. 2014an atxilotu ondoren, 3 urte eta hilabete bat egin zituen preso, baldintza gogorretan bakartuta. Aurrez, 1993an, 2010ean eta 2011n ere atxilotu zuten.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean

parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 14 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 15 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Naia Zurriarain Mendiguren

Bilbo, 1977

1997an, Espainiako Poliziak atxilotu eta inkomunikatuta eduki zuten hiru egunez; torturak salatu zituen Zuriarrainek. Deklaratu ondoren, aske utzi zuten. 2002an, berriz, Frantziako Poliziak atxilotu zuen, eta aske geratu zen 2008an, etakide izatea leporatuta Frantziak jarritako zigorra bete ondoren. Bilbon aritu zen lanean Zulueta- eta abokatu bulegoan, eta 2010eko apirilean berriz atxilotu zuten, abokatuen aurkako operazio batean;

torturak salatu zituen berriz, sexu erasoak tartean. 2011ko martxoan askatu zuten, eta, atxilotu ez zuten arren, 04/08 sumarioan auzipetu zuten gero.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean laguntzea.

Espetxe-zigor eskaera: 12 urteko espetxe zigorra, 8 urteko zaintzapeko askatasuna eta 6.600 euroko isuna.

Inhabilitazio eskaera: Eguneko 10 euroko isuna 22 hilabetez, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.

2015eko urtarrilean egin zuen Guardia Zibilak euskal presoen abokatuen eta beste lau lagunen aurkako operazioa. Hamabi abokatu atxilotu zituzten, eta, deklaratu ondoren, baldintzapean aske geratu ziren abokatuak eta Herrira-ko kide bat –beste hirurak espetxeratu egin zituzten–. Atxiloketak egiteaz gain, Hernaniko, Iruñeko, Gasteizko eta Bilboko abokatuen egoitzak miatu zituzten. Iñaki Goioaga senataria zen garai hartan, eta ez zuten atxilotu, baina inputatu egin zuten gero.

AUZIPETUAK



Arantza Aparicio Lopetegi

Donostia, 1980

Euskal presoen abokatua,
Gipuzkoan. Besteak beste,
Segiren aurkako auzietan eta
Josu Uribetxebarria zenaren
kasuan aritu zen -gose greba
luzea egin zuen larri gaixo
zegoela, eta etxean preso zuteka
hil zen-.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Ainhoa Baglietto Gabilondo

Zarautz, 1971

Euskal presoen abokatua izan da, urte luzez, Gipuzkoan. AAM Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren eta Askatasunaren aurkako epaiketan hartu zuen parte, besteak beste, baita *Parot doktrina* deitutakoaren aurkako lanean ere. Josu Uribetxebarria zenaren kasua ere berak eraman zuen –gose greba luzea egin zuen larri gaixo zegoela, eta etxean preso zutela hil zen–.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean

parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko
espetxe zigorra eta 8 urteko
zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12
urterako, lan edo kargu
publikorako, eta osoa
espetxealdirako eta 10 urte
gehiagorako.



Jaione Karrera Ziriza

Antsoain, Nafarroa, 1981

Euskal presoan abokatua da, Nafarroan. Besteak beste, Segiren eta Batasunaren aurkako epaiketa handietan hartu izan du parte. 2015eko urtarrilean atxilotu zuten.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte

gehiagorako.



Iñaki Goioaga Llano

Bilbo, 1958

Euskal presoen abokatua izan da urte luzez, eta Espainiako Gorteetan senatari autonomiko (EH Bildu) izendatu zuten

2013an, Eusko Legebiltzarrean.
2016a amaitu arte eutsi zion
kargu horri. Tarte horretan izan
zen abokatuen aurkako
operazioa: Goioaga ez zuten
atxilotu, foruduna zelako, eta
Espainiako Auzitegi Gorenaren
esku geratu zen haren inguruko
auzia –Auzitegi Nazionalari
pasatu zion gero, 2017ko
urtarrilean, forua galtzean–.
Lehenago ere leporatu izan diote
Goioagari "erakunde
terroristako kide" izatea.
2009an atxilotu zuten akusazio
horrekin, eta, ia bi urtez
espetxean eduki ondoren,
absolbitu egin zuten.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean

parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Bilbo, 1981

Urte luzez TAT Torturaren Aurkako Taldean egindako lanangatik da ezaguna Ituiño. Abokatu gisa, tortura kasu ugari aztertu izan ditu, eta Giza Eskubideetan eta Generoan eta Berdintasunean espezializatua da. Espainiako Estatuko auzitegietan ez ezik, Europakoetan ere aritu izan da.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12

urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Amaia Izko Aramendia

Iruña, 1971

Euskal presoan abokatua urte luzez, Nafarroan. Besteak beste, Segiren eta Batasunaren aurkako epaiketa handietan eta *Parot doktrina* deitutakoaren aurka aritu izan da, baita Altsasuko auzian ere. *11/13 auzian*, Madrilen atxilotu zuten, 2015eko urtarrileko sarekada izan zenean Batasuna, EHAK eta ANVko kideen aurkako epaiketan jardutekoa baitzen. Sortuko bozeramaile izana da, eta, ekainaz geroztik, Iruñeko zinegotzia da EH Bildurekin.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko

zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Eukene Jauregi

Bilbo, 1984

2010ean hasi zen abokatu lanetan, eta Askapenaren aurkako epaiketari jardun zuen, besteak beste. *11/13 auzian*, Madrilen atxilotu zuten, 2015eko urtarrileko sarekada izan zenean Batasuna, EHAK eta ANVko kideen aurkako epaiketari jardutekoa baitzen. Aurrez, besteak beste, HAEE Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen aritu izan da lanean.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Aiert Larrarte Aldasoro

Hernani, Gipuzkoa; 1976

Euskal presoen abokatua izan da, Gipuzkoan. Besteak beste, TAT Torturaren Aurkako Taldean aritu zen urte luzez, eta Jarrai-Haika-Segi gazte antolakundeen aurkako epaiketetan ere jardun izan du.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Kepa Mantzisor Txirapozu

Mundaka, Bizkaia; 1979

Euskal presoen abokatua,
Bizkaian. Segiren aurkako
epaiketetan aritua da, besteak
beste.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean

parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Onintza Ostolaza Arruabarrena

Oiartzun, Gipuzkoa; 1982

Euskal presoan abokatua,
Gipuzkoan. Segiren aurkako
epaiketetan aritua da, besteak
beste.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean
parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko
espetxe zigorra eta 8 urteko
zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12
urterako, lan edo kargu
publikorako, eta osoa
espetxealdirako eta 10 urte
gehiagorako.



Atxarte Salvador Navarro

Bilbo, 1977

Euskal presoen abokatua,
Bizkaian. Segiren aurkako
epaiketetan aritua da, besteak
beste.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean

parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Muskiz, Bizkaia; 1970

Euskal presoen abokatua izan da urte luzez, Bizkaian. 2014ko martxoan, Bilboko auzitegiak zigortu zuen, Rodolfo Ares Eusko Jaurlaritzako Barne sailburu zela, haren aurka "irainak" egitea leporatuta. Ertzaintzak 2010ean egindako operazio baten harira, Zenonek salatu zuen "Aresen aginduetara" zeuden ertzainek torturak erabili zituztela – atxilotuek torturak salatu zituzten–. Azkenean, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak absolbitu egin zuen. Besteak beste, *Parot doktrinaren* auzian aritu zen, eta tortura kasu ugari salatu izan ditu.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Haizea Ziluaga Larreategi

Bilbo, 1979

Euskal presoen abokatua.

Besteak beste, AAM Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren eta Askatasunaren aurkako auzian aritu zen, eta parte hartu zuen D3M Demokrazia 3.000.000 hauteskunde plataformaren aurkezpenean ere. 2010ean, Segiren aurkako operazio batean atxilotu zuten, Aranjuez (Madril) espetxeko atarian. *11/13 auzian*, Madrilen atxilotu zuten, 2015eko urtarrileko sarekada izan zenean Batasuna, EHAK eta ANVko kideen aurkako epaiketan jardutekoa baitzen.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean

parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.

JAIKI HADI

Euskal gatazkaren ondorioz Espainiako eta Frantziako estatuen aldetik osasun kalteak izan dituztenak artatzeaz arduratzen den elkarte da.

Psikologoek, psikiatreek, medikuek eta bestelako profesionalek osatzen dute plataforma. Besteak

beste, euskal presoen osasun jarraipena egiten dute, eta preso senideei, preso eta iheslari ohiei eta torturatu dituztenei terapia psikologikoa eskaintzen diete. Horretaz gain, espetxean larri gaixo diren preso osasunaren jarraipen txostenak egiten dituzte.

2015eko martxoaren 25ean atxilotu zituzten, Etxerat-eko beste bi kiderekin batera, Fernando Arburua eta Oihana Barrios. Baldintzapean aske gelditu ziren guztiak, batzuk bermepean.

AUZIPETUAK



Fernando Arburua

Zugarramurdi, Nafarroa, 1953

Altsasuko (Nafarroa) apeztegian sartu zen 11 urterekin, eta 25ekin apaiztu. Donostiako Altza auzoko San Jose Langileko apaiz izan zen hainbat urtez, kaputxinoetan frailea baitzen. 1981ean atxilotu zuten, ETako

kide izatea leporatuta, eta 23 urte egin zituen espetxean, guztira. 2004an gelditu zen aske. Jaiki Hadiko kide da, medikua, eta 2015ean atxilotu zuten. Atxilotu eta bi egunera aske gelditu zen, 15.000 euroko bermea pagatu eta gero.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Oihana Barrios

Iruñea, 1980

Psikologoa eta Jaiki Hadi-ko kidea da Oihana Barrios.

Besteak beste, torturak jasan dituzten pertsonak artatu ditu, eta aditua da Istanbulgo

Protokoloa tortura jasan dutela salatu dutenei aplikatzeko Nazio

Batuen Erakundeak lehenetsitako metodo zientifikoan. Salhaketako kide ere bada. Atxilotu eta bi egunera aske gelditu zen, 15.000 euroko bermea pagatu eta gero.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.

Euskal presoen eta iheslarien senide eta lagunen elkarteak da Etxerat. Besteak beste, aholkularitza eta laguntza eskaintzen dizkiete senide eta lagunei, presoen eta iheslarien inguruko egoerari dagozkion salaketak eta aldarrikapenak egiten dituzte, eta "jatorri eta ideologia ezberdinetako" senide eta lagunen arteko "bilgune" da, elkartearen arabera.

2015eko martxoaren 25ean atxilotu zituzten Etxerat-eko Izaskun Abaigar eta Nagore Lopez de Luzuriaga, Jaiki Hadiko beste bi kiderekin batera. Baldintzapean aske gelditu ziren guztiak, batzuk bermea ordaindutakoan.

AUZIPETUAK



Izaskun Abaigar

Kanpezu, Araba, 1986

Etxerat-eko bozeramaile eta langilea izan zen Izaskun

Abaigar, harik eta Guardia Zibilak Etxerat-eko beste kide batekin eta Jaiki Hadi-ko beste birekin batera 2015eko martxoaren 25ean atxilotu zuten arte. Bi egunez preso egon ostean, libre gelditu zen 15.000 euroko bermea ordainduta.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.



Nagore Lopez de Luzuriaga

Agurain, Araba, 1981

Psikologoa da Nagore Lopez de Luzuriaga. Psikologo eta psikoterapeuta gisa egiten du lan, baina EHUko irakasle ere izan da Donostiako Ibaetako Campusean. Atxilotu zutenean, 2015ean, Etxerat-eko langilea zen. Aske gelditu zen handik bi egunera, 15.000 euroko bermea

ordaindu ostean.

Egozten dioten delitua:

Erakunde terrorista batean parte hartzea.

Espetxe-zigor eskaera: 11 urteko espetxe zigorra eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio eskaera: Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako.

berria

Berria.eus - Euskal
Editorea SM